ASTEKARIA - 2010eko uztailaren 9an - XIV. urtea - Usurbil, 415. zenbakia

# Noaua!!

www.noaua.com



Santixabelak, argazkitan



## Eneko Aizpitarte eta Xabier Santxo

# Usurbilgo Pilota Txapelketan, jaun eta jabe

USURBILGO LANBIDE ESKOLA

✆ 943 36 46 00

www.lhusurbil.com

**Erdi eta Goi mailako zikloak A eta D Ereduak**

Administratiboa



Elektrizitate-elektronika



Fabrikazio mekanikoa



Ura eta energia
Produkzio zerbitzu eta manten.



**Honako honen bila bazabiltza:** Kalitatezko irakaskuntza, lanpostu bat topatzeko erraztasuna, enpresa praktikak, atzerrian praktikak, ekipamendurik berriena.

**MATRIKULA ZABALIK uztailaren 7tik 13ra**



I. Urruzola
AROZTEGIA

Konfiantzazko arotza nahi baduzu,
etor zaitez gurera

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea.



Oria etorbidea 4, behea, LASARTE
(Errekatxo jatetxearen ondoan)
Tel.: 943 371 200 • 610 413 131



DIGITAL+

antenas Telemar

1969. urtetik gipuzkoarrei zerbitzua ematen.
Telekomunikabideetan goi mailako teknikariak.

Orain Usurbilgo erdigunean
Ltd-ko kanal berri hauek
ikusteko aukera ...

8 gipuzkoa
teledonosti
Hamaika ikusteko bizitzeko



elkano kalea 13 HERNANI

Tlfnoa. 943 55 33 99
info@antenastelemar.com

tdt

## Albistea iruditan

# Jarraipen zabala izan zuen greba deialdiak

Gehiengo sindikalak deitutako greba orokorrak oihartzun zabala izan zuen Hego Euskal Herrian, industrian eta merkataritzan batez ere.

Euskal sindikatuen gehiengoak (ELA, LAB, ESK, EILAS, EHNE eta HIRU alde batetik; CCOO bestetik) egindako greba deialdiak jarraipen handia izan zuen gure herrian. Saltoki ia denak itxita egon ziren, zerbitzu askotan ez zen lanik egin (udala, kiroldegia, hondakin bilketa) eta enpresetan ere askok bat egin zuten greba deialdiarekin.




Greba egunean elkarretaratzea egin zen Mikel Laboa plazan.

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

Kronistak Kalejiran — 6. Or.
Etorkizun handiko pilotariak — 8. Or.
Santixabelak, argazkitan — 10. Or.
Martxan da Udajolas — 14. Or.
Xabi Bengoetxea txirrindularia — 15. Or.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARAZ

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ALIPROX
Kale Nagusia 10
✆ 943 361 182
USURBIL

izAgirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirrelektrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

TXAPELDUN
TABERNA
razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...
Muna lurra 2, 943 11 82 53

Kale nagusia, 10
Telf. 943 37 33 48
943 37 09 13
Okindegia - Gozotegia
LABE-GOXO



IMANOL UBEDA

# Atun latak

Duela hiru aste edo izan zen. Aspaldiko lagun batekin afaltzeko hitzordua nuen Donostiako jatetxe batean. Asteazkena zen baina jatetxea lepo zegoen. Puri-purian dagoen tokia dela esan zidan lagunak. Denborarekin eskatu behar dela mahaia. Nik ez nuen ezagutzen. Baina jandakoari eta ordaindutakoari erreparatuz, egia esan, berriz errepikatzeko moduko tokia dela esango nuke.

Dena den, asteazken bat izateko mahai denak beteta ikustea (egin kontu, bi pisutako jatetxeaz ari gara hizketan) deigarria egiten zitzaidala aipatu nion lagunari. Krisi garai hauetan, harrigarria gutxienik. Eta ekonomiaz, eta krisiaz, eta kontsumoari emanak igaro ditugun urteotan jende askok hartu dituen ohituretaz hasi ginen hizketan. Donostiako udaletxerako lan egiten duenez nire lagunak, udal administrazioa zein egoera zailean dagoen aipatu zidan, ia blokeo egoeran, eta nola Espainiako udaletxe batzuetan udal langileak atzerapenez ari direla soldatak kobratzen. Bitxia, beti esan izan da bankuetxeetan eta instituzioetan lan egitea bezalakorik ez dela. Horrelakoetan soldata beti dela seguru.

Ikusten duzuenez, futbolak agintzen duen bolada hauetan, gu horrelako gai *aspergarrietaz* hizketan.

Tertulian ginela, nire lagunak honako aholkua bota zidan: “badaezpada, diru pixka bat eduki beharko genuke etxean; eta diru asko izanez gero, bankuetxe ezberdinetan banatuta. Ez gorde dena banku bakar batean. Eta kontserba lata batzuk ere eskuratu beharko genituzke, badaezpada ere”.

Niri barregurea eragin zidan kontserba laten aipamenak. Berak ere barre egin zuen nirekin, baina “argi, hemen ere eman daiteke *corralitoren* moduko zerbait -bankutik aurrezkiak ateratzeko muga-, zergatik ez? Orduan bai, dirua eta oinarrizko gauzak eskuratzeko komeriak!”.

Ekonomiaz ideiarik ez nuela baina euroaz ari ginela hizketan, ezin zela euroa Argentinako txanponarekin parekatu; eta horrela joan zen ekonomiari eskaini genion hizketaldia.

Etxera bidean buruan nituen *corralitoa* eta kontserba latak. Biharamunean, atun latak erosten ikusi nuen nire burua eta egoera hori irudikatzean barregurea sartu zitzaidan berriro.

Santixabel bezperako Berrian baina, nire lagunaren teoria indartzera datorren elkarrizketa interesgarria topatu nuen. Hitzez hitz, gainera. Nekane Jurado ekonomialaria eta psikologoa Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Planifikazioaren arduraduna izan zen 25 urtez. Gaindegia Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behatokiak antolatutako mahai-inguru batean hizlari aritzekoa zen eta aitzakia horrekin elkarrizketatu zuten egunkarian. Adi galderari eta erantzunari:

“Berria. *Corralito* eta halakoak hemen ezartzea posible ikusten duzu?

Nekane Jurado. Bai horixe. Dirua bankutik atera beharko genuke, eta adreilu baten azpian gorde. Behintzat ez izan dena banku berean. Konturatu behar dugu bankuek geure diruarekin egurtzen gaituztela. Igarriko bagenu zelako boterea dugun aurrezle gisa, desobedientzia edo intsumisio kanpaina hasiko genuke behar ez den kontsumoaren eta bankuen kontra”.

Tumatxa! Ez nuke alarma piztu nahi, baina akaso nire lagunaren aholkuak ez dira hain barregarriak, ezta?

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - **Imanol Ubeda** - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Ugaitz Agirre - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

## Israelgo erasoa salatzeko mozioa

Maiatza amaieran “Askatasunaren itsasontzia” izenekoaren aurka Israelgo Estatuak burutu zuen erasoaldia salatu du udalbatzak, mozio bidez.

Ekainaren 30eko osoko bilkuran, Ezker abertzaleak eta Aralarrek aurkeztutako bi mozio onartu zituen udalbatzak.

Bi mozioak udal talde guztiek babestu zituzten, Alkarbideko ordezkariek izan ezik, Aralarrenaren alde eta Ezker abertzalekoaren aurka bozkatu baitzuten.

## Udalbiltzaren aurkako auzia salatu eta akusazio publikoa erretiratzea eskatu du udalbatzak

Egun gutxi barru hasiko da Udalbiltza eta bertako hautetsi eta langile ohien aurkako epaiketa, Madrilgo Auzitegi Nazionalean. 22 hautetsi eta langileentzat 10 eta 23 urte arteko kartzela zigorrak eskatzen dituzte, baita Udalbiltzaren behin behiko ilegalizazioa ere. Horren haritik, “Bai Udalbiltzari, Bai Euskal Herriari” izeneko adierazpena onartu zuen udalbatzak, ekainaren 30ean burutu zen ezohiko osoko bilkuran.

Gobernu taldetik proposatutako testuari osoko zuzenketa aurkeztu zion Alkarbide udal taldeak. Bozeramaile Luis Mari Ormaetxeak irakurri zuen hiru puntuko adierazpenean, atzerapen demokratiko gisa definitzen dute hastear den epaiketa. Duela hamaika urte onartutako helburuak delitutzat ere ezin direla jo gaineratzen dute, epaiketa irmoki salatu eta akusazio publikoa erretiratzea eskatzearekin batera.

Ondorioz, Ezker abertzaleak aurkeztutako mozioaren aurka bozkatu zuen Alkarbidek, baita PSE-EE-ko udal ordezkariak ere. Aralar eta EAJ-PNV alde agertu ziren.

# Gerontologikoa eraikitzeko kontzertazio hitzarmena onartu da

**Kalezarko Portalmusu eta Komentua izeneko lur eremuetan eraikiko den gerontologikoari begira, hirigintza alorreko bi erabaki hartu zituen udalbatzak joan den ekainaren 30ean burutu zuen ezohiko osoko bilkuran.**



Ekainaren 30ean bildu zen udalbatza plenoa.

Egun, mojen eraikina dagoen lekuan, 150 lagunentzako gerontologikoa eta berrogei lagunentzat lekua izango duen Eguneko Zentroa eraikiko dira. Ekaina amaierako osoko bilkuran, batetik Arau Subsidiarioetako aipatu A-96 eta A-97 eremuetako kontzertazio hitzarmena behin betirako onartu zuen udalbatzak.

### Alegaziorik ez da aurkeztu

Alkateak berri eman zuenez, hitzarmena hasieraz onartu ostean ez da alegaziorik aurkeztu. Batzordetik pasa gabe, gaia zuzenean osoko bilkurara eraman zutenez, bilkura berean udal ordezkariek gai zerrendan txertatu edo ez erabaki behar izan zuten. Alkarbide udal taldea aurka agertu zen, Aralarreko udal ordezkariak abstenitu ziren eta Ezker abertzalearekin batera, EAJ-PNV eta PSE-EE-ko udal ordezkariak alde agertu ziren. Gehiengoak hala onartuta, gaia osoko bilkuran jorratzea erabaki zuten. Bozketan, emaitza bera errepikatu zen. Eta kontzertazio hitzarmenak beraz, behin betirako onespena du.

### Plan Berezia

Kontzertazio hitzarmena soilik ez, Portalmusu eta Komentua lur eremuei lotutako Arau Subsidiarioetako Plan Berezia ere behin betirako onartu zuen udalbatzak osoko bilkura berean. Alkarbide udal taldeak aurka bozkatu zuen, aldiz Aralarreko udal ordezkariak abstenitu ziren eta Ezker abertzaleak, EAJ-PNV eta PSE-EE-ko udal ordezkariek proposamena babestu zuten.

# Sekaña eremuko ezaugarri fitxaren aldaketa puntuala onartu dute

Xabier Mikel Errekondo alkatearen esanetan lanek gehieneko metro karratu kopurua gainditu dutenez, Sekaña eremuari lotutako araudian egokitzapen bat txertatzea proposatu zuen gobernu taldeak azken osoko bilkuran. Arau Subsidiarioetako Sekaña eremuko Ezaugarrien Fitxaren Aldaketa Puntuala udal ordezkari guztiek babestu zuten, Alkarbide taldekoek izan ezik, abstentziora jo baitzuten.

## Maixu etxeko alokairuko etxebizitzen zozketarako zerrendak, onartuak

Udalbatzak aho batez onartu zituen ekainaren 30eko osoko bilkuran, Udalak alokairu sozialera bideratu nahi dituen Maixu etxeko sei etxebizitzen zozketarako aurkeztutako eskaera onartu eta baztertuen zerrendak. Epearen barruan, beharrezko dokumentazio eta guzti hogei eskabide aurkeztu zituzten herritarrek. Hamabi onartu ditu Udalak, beste zortzi baztertu.

Zerrendok udaletxeko iragarkitaulan jarriko dituzte. Bestalde, onartutakoek Gernika ibilbidea 13an, Udarregi ikastola ondoan kokatzen diren sei etxebizitzen zozketan parte hartuko dute. Zozketa eguna aurrerago zehaztuko du Udalak.

## Batzorde baten izen aldaketa onartu da

Orain arte, Ongizatea, Emakumea eta Gizarte Politika Batzordea zenak, aurrerantzean izen berria izango du: Ongizatea, Berdintasuna eta Gizarte Politika Batzordea. Berdintasunerako teknikariak prestatu duen txosteneko proposamena aintzat hartuta erabaki zuen udalbatzak, ekaina amaierako osoko bilkuran aipatu izen aldaketa. Alkarbide udal taldea abstenitu zen, gainerako udal ordezkariek proposamena babestu zuten.

Zuen publizitatea hemen
✆ 943 360 321
publizitatea@noaua.com

Otar-Goxo
Elikagaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

Patri Jatetxea
K/nagusia 14. ✆ 943 362 725

ANTXETA
taberna-jatetxea
ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak
EGUZKITZA, 4 · 943 370 344

KALEZAR MAIDER MAKAZAGA

# Ziortzako kanpaldia abian



Joan den astelehen goizean, uztailak 5, auzoko eta herriko jaien ajearekin oraindik eta Kale Nagusian iskanbila latza muntatu ostean, hantxe abiatu ziren motxilaz, gaztez, begiralez, laguntzailez, ilusioz eta gogoz puntaraino betetako autobusa, hain maitatua dugun Errioxako Peñaloscintos aldera.

Hamabost egun dituzte gazte hauek aurrez-aurre elkarren artean beste esperientzia berri bat bizitzeko Ziortza Gazte Elkarteak antolatutako kanpamenduan, asko sarritan joan diren arren, ez baita inoiz berdina izaten.

Pasa den ekainaren 26an egin genituen kanpamenduko muntaketa lanak eta ez nuke aukera hau pasatzen utzi nahi bertara gerturatu ziren guztiei Eskerrik Asko esan gabe. 50 lagun elkartu ginen Peñaloscintosen eta, euria egin bazigun ere, bertaratu ginenok giro ederrean guztia prest uzteko aukera izan genuen. Lehenengo txanda amaitzen denean, Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailakoak joango dira, beste 35 gazte. Hauen irteera uztailaren 18an izango da, igandea, goizeko bederatzietan udaletxe aurreko autobus geltokitik eta autobus berberaren ardura izango da bertan dauden 47 gaztetxoak etxera bueltatzea arratsaldeko zazpiak eta laurden alderako, gutxi gora behera.



Honenbestez, ondo pasa dezatela eta datorren urtean ere bueltatzeko gogoz etorri daitezela. Ondo izan eta hurrengora arte.

AGINAGA Mª ANGELES ARRUTI

# Ohitura zaharrak



Hemen nauzue berriro zuen artean, oraingoan San Joan sua hizpide dudala. Lehengo ohitura zaharretako bat dugu, eta zer polita. Bere inguruan sortzen den alkartasuna eta umore onari esker, ordu batzuetan ahaztu egiten ditugu gure arazo txikiak, eta ez da gutxi. Gainera auzotarrak oso gutxi elkar ikusten gara, gehienetan autoan atzera eta aurrera.

Orain urte batzuk hogei bat lagun elkartzen ginen suaren inguruan, haur, heldu eta helduagoak, hiru belaunaldi. Batzuk xanpaina, besteek pasta, gailetak edo kafe beroa ekarri, eta kanta, bertso eta trikitixarekin ospatzen dugu. Eta benetan zer gauza ederra ikustea, auzotarrak elkartuta askotan ez baita aukera hori zoritxarrez gertatzen. Aurten hamar lagun bildu gara eta goizeko ordu txikiak etorri ziren bakandu gintenerako. Alaitasun ederrarekin igaro genuen.

Datorren urterako auzotarrak animatu nahi ditut talde handiagoa osatzera. Lehengo ohiturak zaharrak mantendu egin behar ditugu eta gure ondorengoei erakutsi. Pena izango litzateke galtzea. Beste kontu bat. Igandeko gizon proba, Aginagak irabazi zuen. Zorionak! Aupa Agiña! Denek lan handia egin zuten. Nahiz galdu, zorionak Usurbilgo taldeari ere.

URDAIAGA NEREA AIZPURUA

# Badatoz auzoko jaiak



Agur bat guztiei San Estebango txoko honetatik! Eguraldi onarekin batera etorri zaigu uda eta orain, disfrutratzea besterik ez zaigu geratzen. Eguraldiaz, hondartzaz edo mendiaz, hainbeste desiratutako oporraldiaz… Eta nola ez, han hemenka topa dezakegun festa giroaz! Behin herriko festak pasata, aurretik ditugun auzoetako jai giroan murgiltzea tokatzen zaigu.

San Estebango jaiei dagokionez; egun handia aste artean tokatu arren, ez da festarik faltako gurean. Jai Batzordekook ia dena lotua dugu dagoeneko, beraz, aurten ere auzora hurbiltzeko gonbita luzatu nahi dizuegu guztioi.

Gaiez aldatuta, bere garaian aipatu banuen ere, parkean zaborrontziak falta direla gogorarazi beharrean aurkitzen naiz. Jende asko da egun-pasa edo arratsalde pasa hurbiltzen dena eta ohikoegia bihurtzen ari da parkea zaborrez, botilaz… josia topatzea. Denon erantzukizuna da ingurunea zaintzea!

Gaurkoz besterik ez, uda ona izan, zoriontsu izan zaiteztela eta laster arte!

*Aurrerantzean, Kalejiran ataleko 8 kronikak txandaka argitaratuko ditugu. Txokoalde eta Santueneko kronikak hurrengo batean bilduko ditugu.*

ZUBIETA

GARAZI ITURRALDE

# Otsoak iritsi dira Zubietara



Uda iritsi da, baina otsoak ere iritsi dira, nahiz eta hauek neguan azaldu gure mendi inguruetara. Otso hauek ez dira marrazkietakoak bezalakoak, otso beldurgarri, erraldoi eta lokatz gorriz zikinduta daude. Hasiak dira mendi tarteetan ibiltzen errausgailuaren bidea eginez. Lur guztia mugituta dago eta makina pila bat daude bide zabal bat egiten.

Orain arte ez ginen konturatu bidea egiten hasiak zirenik, baina bai, jadanik hasi dira bidea egiten, nahiz eta oraindik errausgailua egiteko baimenik ez izan. Eta gainera, orain arte egindako bidea ez da motza, "Lertxundiko Gainara" iritsiak dira.

Ezin da adierazi nolako tristura ematen duen hori horrela aurkitzeak. Dena suntsituta, makina erraldoiak, lur gorria non nahi agerian... Hau guztia ezin da hitzez azaldu, bertatik ikusi beharra dago.

Baina nahiz eta obrak martxan hasi oraindik ezin dugu etsi. Makina hauek bidea egitera bakarrik etorri dira eta ez errausgailua egitera. Beraz, egin dezagun denok borroka otso hauen kontra!! Errausketarik ez!!



KALEBERRI

BEGOÑA REKONDO

# Ilusioa



Bukatu dira aurtengo Santixabelak. Ilusioz antolatutako egunak, ilusioz beteriko egunak. Festa egun batek uzten dituen aztarnak. Festa egun guztiek uzten dituzten aztarnak.

Toki bat, aurpegi asko, mila hitz, mila irri, negarren bat, frontoia, Askatasun plaza, beheko plaza, udaletxea, eliza, herriko edozein kale, umeak, gazteak, helduak, herrikoak, kanpokoak, bertsotan, kantuan, dantzan, barraketan, jatetxean, tabernan, hitz egiten, entzuten, barrez, oihuka, dena eta denok festan.

Umeen aurpegietan zoriona lehenbizikoz jendaurrean dantza egiten dutenean edo zaldiko-maldikoan ibiltzen direnean. Amonen ilusioa, festara etorritako senideentzat, bazkaria prestatzerakoan. Hainbat buruhauste hilabeteetan festa antolatzen aritu diren herritarrentzat. Bolondres bezala ekitaldi batean edo bestean parte hartzen ibili direnen ilusioa.

Festa egunak amaitu dira, jende ugari bazterretan, Dema plaza okasiorako apainduta, errauskailu bat zintzilik frontoian, eta azken egunean musika kubatarra belarrietan eta azken traka gaueko hamaiketan. Ondo pasa oporrak.

ATXEGALDE

UNAI AIZPURUA

# Waka-Ixabelak 10!



Astelehena 6:30 a.m. Iratzargailuak bost eguneko ametsetik esnatu nau. Nekatuta (oso) baina irrifartxo txiki batekin, halaxe txistuka joan naiz lanera!

Santixabelak, joan zaizkigu
Gozatu, irri, jan ta parranda topera bai gu
Laguntasunez, giro alaia
bost egun osoz, gora eta behera, gozatuz jaia

Goizetikan, gauera
Gauetikan, goizera

Txoznan pote bat orain
Dantzatuz oso lirain
Tsamina mina sangalewa
Gora Santixabel!

Tsamina mina eh, eh
Waka Waka eh, eh
Tsamina mina sangalewa
Gora Santixabel!

# Usurbilgo jubenil taldea garaile,
# Santixabeletako pilota txapelketan

**Xabier Santxo eta Eneko Aizpitartek irabazi dute Usurbilgo XXXVIII. Pilota Txapelketa, jubenil mailan. 22-15 irabazi zioten Bidegoiango Oronoz-Labaka bikoteari. Garaipena eskuratuta, udan antolatu ohi diren hainbat txapelketetan parte hartuko dute, mailaz aldatu aurretik. Datorren kirol urtean, afizionatu mailara igaroko dira eta.**



AFIZIONATU MAILAN ARITUKO DIRA DATORREN URTEAN ENEKO AIZPITARTE ETA XABIER SANTXO.

**NOAUA! Pozik azken emaitzarekin. Nola joan zen neurketa?**

**Xabier Santxo.** Aurkariak ondo aritu ziren. Gure taldean Eneko bai, baina ni ez nintzen ondo ibili. Paretsu hasi ginen, hiruko berdinketarekin. Gero gu aurretik joan ginen, 9-3. Aurkariak hurbildu zitzaizkigun jarraian. 19-15 ginela, guk aurre hartu eta partida irabazi genuen.

> XABIER SANTXO
>
> "Herrikoa izanda, beti txapelketa honetan jokatu izan dugu. Txikitatik gabiltza, zazpi urtetatik"

**N. Sufritu zenuten beraz?**

**X. S.** Bai. 9-3 irabazten ari ginela, gerturatzen ikusi genituen aurkariak. Apur bat urduri jarri ginen. Gainera etxean jokatzen genuen, eta maila hobea erakutsi nahi genuen.

**N. Partida hain berdindua izatea espero zenuten?**

**X. S.** Partida parekatua izango zela uste genuen. Ez ziren ez haiek faboritoak, ezta gu ere.

**Eneko Aizpitarte.** Aurrelaria Lesakakoa zen. Kolpe handia du, ondo ibiltzen da aurrean. Zelaiak ere ondo jokatzen du, Bidanian ibiltzen da.

**N. Nolatan hasi zineten parte hartzen txapelketa honetan?**

**X. S.** Herrikoa izanda, beti txapelketa honetan jokatu izan dugu. Txikitatik gabiltza, zazpi urtetatik. Orain hemezortzi urte betetzera goaz.

**E. A.** Nik ere benjamin mailan jokatu nuen. Ez naiz gogoratzen urtero, baina maila guztietan jokatu dut. Santxorekin bitan behintzat.

**N. Hernanikoa zara Eneko. Nola moldatu zara txapelketa prestatzeko?**

**E. A.** Entrenamendu saioak Hernanin burutzen ditut. Eta Santxorekin ere han entrenatu izan dugu, eta gero txapelketak, edozein herritan, egokitzen den lekuetan. Elkarrekin behin baino gehiagotan jokatu izan dugu.

**N. Denetariko aurkariak izango zenituzten. Baina nortzuk eragin dizkizuete buruhauste gehien?**

**E. A.** Aurrenekoak Donostiakoak izan ziren, Lizaso-Ortiz de Urbina. Gero, zegamarrak eta Astigarragakoak.

**X. S.** Gogorrenak azkenak, haiek aurrerago iritsi dira eta. Maila gehiago dutela suposatzen da.

**N. Usurbilgo ordezkari bakarrak izanda, urduri zineten finalaren aurretik?**

**X. S.** Lasai ibili gara, beste partida bat balitz bezala. Etxean zaude, lagunen eta jendearen aurrean hobeto gelditu nahi izaten duzu, baina besterik gabe.

**N. Final neurketa baterako, baldintza onenak zeintzuk dira?**

**X. S.** Nik behintzat pilota nahikoa ona nahi izaten dut. Frontoi hau ez da oso luzea. Eguraldi aldetik, eguzkitsu baino lainotuta nahiago.

**E. A.** Niretzat garrantzitsuena urduri ez jartzea, eta beste neurketa batean bezala jokatzea da, presiorik gabe ahal bada.

**N. Espero al zenuten finalera ailegatzea?**

**X. S.** Garrantzirik ez diogu eman aukera horri. Partidak jokatzen hasi eta aurrera pasa gara. Baina ez helburu horrekin, txapelketa hasterako ez ginen ikusten finalean.

**N. Final saiorako bereziki prestatu zarete?**

**X. S.** Partida honetarako entrenamendu saio espezifikorik ez dugu egin.

# Hurrengo erronka, Gipuzkoako Txapelketa

**NOAUA! Txapelketan zehar, nola ikusi dituzue gainerako usurbildarrak?**
**Xabier Santxo.** Ondo aritu ziren Errasti eta Orioko Aranalde. Final laurdenetara ailegatu ziren. Baina bestela ez da ordezkaritza handirik egon.

**N. Udan hainbat udalerrietan txapelketak antolatzen dira. Usurbilgoa amaituta, beste herrietan parte hartzeko asmorik baduzue?**
**E. A.** Pentsatzen dut baietz. Orain partida dezente izaten dira herri bakoitzean, festak direla eta.


XABIER SANTXO, JAIETAKO FINALEKO PARTIDAN.

**N. Maila aldaketa datorkizue hurrengo denboraldian. Prest ikusten al duzue zuen burua?**
**E. A.** Hasieran behintzat, egurra jasoko dugu, baina pixkanaka ikusten joango gara ia zer egiten dugun.
**X. S.** Hori ailegatu artean ari gara 22 urtez azpiko txapelketa batzuetan jolasten. Modu horretan ohitzen zoaz, pilotak gehiago pisatzen baitu. Lehen urtea izango da txarrena, hortik aurrera guk ere aurrera egin beharko dugu.

**N. Datorren denboraldia nola hasiko duzue?**
**X. S.** Gipuzkoako Txapelketarekin hasten da beti. Aipatu txapelketan ondo aritzen bagara, lehen postuetan sailkatuz gero Euskal Ligako plaza lortzen da. Baina gu datorren denboraldian afizionatu mailan jokatuta, Gipuzkoako Txapelketan ahal dugun ondoena egiten saiatuko gara eta hortik aurrera ikusiko dugu.

# Frontoia gainezka bi finaletan

Jaietan jokatu ohi dira Pilota Txapelketako finalak. Hainbat hilabetez, Euskal Herriko txoko ezberdinetatik etorritako pilotariak aritu dira lehian, jubenil zein nagusien mailan. Jubeniletan, Xabier Santxo-Eneko Aizpitarte bikoteak 22-15 irabazi zion Oronoz-Labaka bikoteari. Eneko Aizpitarte izendatu zuten jubenilen txapelketako jokalari onena.

Nagusietan, aldiz, Apezetxea-Zubiri bikoteak irabazi zuen nagusien finalean, Arribillaga-Loiola bikoteari 22-17 irabazi eta gero.

Oier Apezetxea izendatu zuten nagusien txapelketako jokalari onena.



## Kastrok eraman zuen urdaiazpikoa

Santixabeletan jokatu ohi da Usurbilgo Pilota Txapelketako finala. Errifan, 1.057 zenbakia izan zen saritua eta horri esker urdaiazpikoa tokatu zitzaion Kastrori. Irudian, Kastro bera saria jasotzen.


URDAIAZPIKOA ERAMAN ZUEN 1.057 ZENBAKIARI ESKER.

# Artista ugari VIII. Pintura Lehiaketan

Goizean zehar frontoian 2-12 urte arteko haur eta gaztetxoek sormena bultzatuta marrazten aritu ziren jaietako lehen egunean, ekainaren 30ean. Eguerdian banatu ziren sariak, frontoian. Guztira, hamaika haur eta gaztetxoren lanak saritu zituzten.

4 urte: Beñat Bengoetxea.
5 urte: Hodei Jauregi.
6 urte: Maddi Altuna.
7 urte: Uxue Diez.
8 urte: Eñaut Pagola.
9 urte: Ianire Unanue.
10 urte: Eider Makazaga.
11 urte: Maddi Egizabal.
12 urte: Tamara Palacios.
13 urte: Natali Izagirre.
14 urte: Miren Izeta.



PINTURA LEHIAKETAKO IRABAZLEAK, SARIAK ESKUETAN DITUZTELA.



UDALETXETIK ABIATU ZEN HAUR DANBORRADA ETA KALEJIRAN IBILI ZIREN.



HURBILAGOKOAK ARITU ZIREN LANEAN LORE ETA SALDA BANAKETAN.

## Usurbilgo Harriaren aurkezpena

Xirimiriaren ondorioz, harri-jasotzaileen erakustaldia frontoian egin behar izan zen.

Jaietako erakustaldian, Usurbilgo Harriaren aurkezpena egin zen. Berez, bi dira harriak, bat 151 kilokoa eta bestea 96 kilokoa (Mendizorrotzeko malda batetik hartuak).

151ekoarekin aritu ziren Haimar Irigoien eta Izeta II; eta Haimar izan zen denbora gutxiena behar izan zuena.

96 kilokoarekin aritu ziren Miren Urkiola eta Idoia Etxeberria.

Usurbilgo Harriekin batera, lehen aldiz aurkeztu zen jendaurrean Saiatuz elkartea, herri kirolak sustatzeko Usurbilen osatu den elkartea.



MIREN URKIOLA ETA IDOIA ETXEBERRIA 70 KILOKO HARRIAREKIN LEHIATU ZIREN.



HAIMAR IRIGOIEN ETA IZETA II HARRI EZBERDINEKIN ARITU ZIREN.

## Pala ikuskizuna jaien atarian

Xabier Errasti eta Manuel Galarraga nagusitu ziren gizonezkoen pala txapelketan, finalean Iñaki Errekondo eta Haritz Harreguyri irabazi eta gero. Argazkietan, antolatzaileak eta irabazleak, batetik; emakumezkoen pala erakustaldia, bestetik.





# Itziar Alvarez omendu zuten txupinazoan

Urtero moduan, Santixabel bezperan gauerdian piztu zen jaiei hasiera ofiziala eman zien suziria. Txupinazoa ordea berezia izan zen. Udaletxeko balkoian, udal ordezkariekin batera danborrada taldekoak zeuden. Behean, plazan danbor jole helduak eta herritar andana, danborradaz gozatzera bertaratuak. Aurtengoan, oso modua berezian gainera, Itziar Alvarez urteetan danborrada antolatzeaz arduratu den herritarra omendu baitzuten. Berari eskainitako hitzak entzun ziren udaletxeko balkoitik, danborra taldekoen aldetik lehenik, gerora Xabier Mikel Errekondoren ahotik. Alvarezen alargunak oroigarria jaso zuen emanaldiko une hunkigarrienean, danborrada taldekoen eskutik eta plazara bertaratu zirenen txalo artean.


ARRATSALDEKO SAIOA BERTAN BEHERA GERATU ZEN BAINA TXUPINAZOAN JOTZEN ARITU ZIREN HELDUEN DANBORRADAKOAK.


HUNKIGARRIA IZAN ZEN PRESOEN SENIDEEK JASO ZUTEN OMENALDIA.


ASKATASUNA PLAZA GAINEZKA IZAN ZEN ZIKIRO-JANEAN.

## Bola txapelketako irabazleak


IGANDEAN JOKATU ZEN BOLA TXAPELKETA. ARGAZKIAN DIRA AURTENGO IRABAZLEAK. PEDRO LAZKANO (GIZONEZKOEN TXAPELDUNA), NIKOLAS OSABA (GIZONEZKOEN BIGARRENA), ANTONIO GOENAGA (GIZONEZKOEN HIRUGARRENA), ENRIKE LOPETEGI (GIZONEZKOEN LEHEN USURBILDARRA) ETA IXABEL AGIRRESAROBE (EMAKUMEZKOEN IRABAZLEA).

## Kantu Taldearen esker oneko hitzak

Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak pozarren eskerrak eman nahi dizkie hainbat herritarrei, Santixabeletako kantu-jiran eta kantu-zikiro bazkarian “gure kantuak kantatuz euskal abestienganako zaletasuna bultzatzeaz gainera, herrian, euskal giro erakargarri bat sortzen ahalegindu zirelako. Eskertu nahi dugu baita ere, tabernarien eskuzabaltasuna, zintzurra pixka bat bustiz goxoago kantatzen baita. Irailetik aurrera berriro ikusiko gara asteroko entseguetan eta baita kantu-jiretan ere”. NOAUA!ren bidez jakinaraziko dira entseguen hasierako data eta ordua.


KANTU JIRAKOAK KALEAK GIROTZEN ARITU ZIREN LARUNBATEAN KUXKUXTU TXARANGAREKIN.

# Giza-proban, Aginaga garaile

Aginagak 25 plaza eta Usurbilek 24. Horixe, joan den uztailaren 4an jokatu zen giza-probako azken emaitza. Hogei minutuan mila kiloko harriarekin zenbat plaza egin, hortxe zegoen usurbildar eta aginagarren arteko desafioaren gakoa. Saiatu ziren bi taldeak, indarrak ahitu arte aritu ziren lanean. Batzuek zein besteak babesten, txalotzen, eta oihuka Dema plazara hurbildu eta lehia gunea bete zuen jendetza. Azkenean ordea, Aginaga garaile. Amaitu zen txapelketa, eta bukatu desafioa. Laguntasuna nagusitu zen orduan, bi taldeetako kideek elkarri eskua eman eta taldeko argazkia atera zuten.



AGINAGA ETA USURBILGO TALDEAK, DESAFIOAREN ONDOREN EGINDAKO ARGAZKIAN.



ZANPANTZARRAK IGANDE EGUERDIAN ARITU ZIREN.



HERRIKO DANTZARIAK GOGOTSU SAIATU ZIREN.

# Aizkolarien artean, gazteak nagusi



GAZTEAK NAGUSI IZAN ZIREN USURBILGO AIZKOLARIEN ARTEKO TXAPELKETAN. ARRILA II-DORRONSORO BIKOTEA HASIERATIK NABARMENDU ZEN ETA LEHENAK IZAN ZIREN LANA OSATZEN. IKUSKIZUN EDERRA ESKAINI ZUTEN ARRILA I-OLASAGASTI ETA IRUNTXO-ITZAO BIKOTEEK ERE, HERRITAR ASKOREN ANIMOEN ARTEAN.

## Azken trakarekin, akabo festak...

Jaietako zaindari lanak Patxi Azpiroz herritarrak sortu eta "ez, ez, ez erraustegirik ez!" mezua zeraman errauskailuak egin ditu aurten. Jaien amaieran agurtu zuten, ohi bezala, Dema plazara hurbildu ziren herritarrek. Ezohiko moduan agurtu ere, iragarri moduan aurtengo maskota, errauskailua ez baitute erraustu. Bost egunez frontoian zintzilik egon ostean, Elizako horma parera jaitsi zuten. Dema plazan zehar organikoa jasotzeko kubo marroiak jarri zituzten, barruan urez betetako globoak zeudela. Hortik aurrerako lanak gaztetxoen esku utzi zituzten ekitaldiko antolatzaileek. Kea botatzen jarri zuten errauskailua, gaztetxoek urezko globoekin itzalarazi zuten. Ekitaldia jaietara etorritako Kubako Deboson taldeak girotu zuen.



# Santixabel Bertsopaper Lehiaketako txapeldunaren bertsoak

Hilabeteak iragan hala
Garaiagoa hesia
Krisia dela eta ez dela
Bada hainbat profezia
Mezu berriak, inbertsioak…
Langile-analgesia
Hauen ahotan langabezia
Bihurtzen da poesia
Neurri batean konplize gara
Gaurko neo-burgesia
Lehen hain sano izan genuen
Gaur gure ahulezia
Hemen aspaldi hasia dago
Elkartasun gabezia

Hiru alaba eta semea
Eman dizkigu bizitzak
Argazki baten, diru-zorroan,
Beti hurbil daramatzat
Oroitzen ditut lehen irriak
Oroitzen ditut jaiotzak
Oroitzen ditut ustekabean
Esan zizkiguten hitzak
Ai! Nola esan hitz goxoekin
Hain zakar dena niretzat
Aita kalera bota dutela
Ulertu dezan bakoitzak
Langabetuak mundu honetan
Garela zenbaki hutsak

Sukalde huts bat lau aulkirekin
Ez lanpara eta ez mahai
Eta oraindik lau umerekin
Moldatu behar gara ai!
Lau motxilatxo, liburuentzat
Eta klaseetan alai
Baina kalean badauzkazue
Klasean hainbat ikasgai
Eta bizitzak ekartzen ditu
Hainbat une, hainbat garai
Wall street, ibex, euribor, down jones
Dena izan, gehiago nahi
Haiek burbuila lehertu zuten ta
Familia hau ere bai

Berrogei urtez luzatu zuten
Gainean daukadan zama
Hipoteka bat eskatu nuen,
Bide txarretik narama
Bederatziehun eta bi euro
Hileroko gure drama
Ta ezin iritsi, ezin kitatu
Zenbakien filigrana
Amets honetan ez da nabari
Haseran bazuen xarma
Zurrunbilo hau bilakatu da
Eguneroko izana
Guri begira jarri du kutxak
Ez zegozkigun diana

Langabetuak milaka eta
Isiltasun hau hain ozen
Norbereak bere bidea hartu
Batzuk mindu ez daitezen
Baina ilara luzeak daude
Zenbat izen ta abizen
Patrika batzuk zuloz josiak
Beste batzuk horren gizen
Laguntza eske ibili naiz ta
Denak ihesi zihoazen
Esaten nien “sikiera batu,
Indartsu egin gaitezen!”
Baina Reala igo da eta
Hemen ez da deus gertatzen.

Palota, igeltsu ta espatula
Eskarmentu nabaria
Atzaparretan atzematen zait
Ez naiz pertsona nagia
Igeltsuaren hautsak arnastuz
Osasuna miraria
Eraikuntzaren errotan urik
Ez dabil horra egia
Iritsi zaigu burges berrioi
Nahi ez genuen hegia
Igeltsaritzan hamabi urte
Ta hona horren saria
Besteei etxeak egiten egon
Ta galdu nire kabia

Lau umerekin, kale gorrian
Iritsi da garizuma
Elixabetek erakutsi dit
Baduela nortasuna
Zaharrena izaki arduratsu da
Beti baietz erantzuna
Eta lagunez ezin kexatu
A ze “bandido” bilduma
Euren ateak zabal zabalik
Zenbat da zor dieguna?
Holakoetan nabaritzen da
Bakoitzak duen fortuna
Hau da arazo denen gainetik
Bakoitzaren ondasuna

Zen erreza den maldan jartzea
Lehen hain ordekan zena
Hau da munduan opa daitekeen
Azkenengotan azkena
Itxaropena omen da beti
Azkenengo galtzen dena
Ta horregatik hartu behar da
Indar guztiekin trena
Seme-alaben maitasuna da
Nire motorra, kemena
Euren geroa eta izana
Da aitzaki nabarmena
Mundu berri bat posible dela
Sinestarazi nauena

**Egilea:** Ion Aizpurua Esnaola.



# Martxan da Udajolas



Hasi da Udajolas. Hilabetez, 100 gaztek hartuko dute parte udaleku ireki hauetan. Astelehenean, goizeko 9:30ean deituak zeuden denak. Frontoi inguruan jendetza zegoen bilduta, gurasoak, umeak... Taldeak antolatu, begiraleak eta haurrak elkar ezagutu, nahikoa zalaparta bazen asteleheneko lehen orduan.

## Lanbide hastapen tailerretan izena emateko epea laster itxiko da

Uztailaren 16an itxiko da 2010-11 ikasturtean Lanbide Hastapenean ikasketak hasi nahi dituenarentzat matrikulatzeko epea. Bi ikasketa eskaintzatan izena emateko aukera dute, 16-18 urteko gazteek, DBH graduatua lortu ez dutenek edota lanbide bat ikasi nahi duten gazteek. Eskualde mailan modu koordinatuan, guztira lau espezialitate eskaintzen dira. Usurbilgo udalaren eskutik, sukaldari-zerbitzari langilea edo ile-apainketa eta edergintza laguntzailea izateko prestakuntza eskainiko da. Andoaingo Udalaren eskutik, soldadura edota karrozeriako langile izateko trebakuntza. Bi ikasturtez osatutako eskaintza, 2.100 ordu guztira, doakoa da. Informazio gehiago: lhi.usurbil@gmail.com edo 943 360 465 telefono zenbakian.

## Zubietako Udako Txokoetan aurreko ostiralean hasi ziren biltzen

Zubietan, ordea, lehenago hasi ziren Udako Txokoak; udan martxan izan ohi diren udaleku irekiak. Uztailaren 1ean hasi ziren elkartzen, Zubietako Eskola Txikietan.

Goizero, 9:30ean elkartuko dira eta 13:30erako akabo. Ordaindu beharrekoa, izena eman duten haurren kopuruaren baitan zegoen eta dagoeneko zehaztu dira kuotak.

Zubietako Eskola Txikikoek, hilabete osoarengatik, 90 euro. Hamabostaldiarengatik, 60 euro.

Beste eskolatako haurren kasuan, hilabete osoa 100 euro eta hamabostaldia, 70 euro.

Kuota 2101 0048 21 0004157517 kontu korrontean sartu beharko da. Kutxako ziurtagiriko azalpenean haurraren izena eta abizena jarri.

## Usurbilgo Lanbide Eskolan matrikulazioa zabalik

Uztailaren 13an amaituko da Usurbilgo Lanbide Eskolan matrikulatzeko garaia. Erdi eta goi mailako zikloak eskaintzen dira, A eta D ereduetan. Informazio gehiago 943 364 600 telefono zenbakian.

www.lhusurbil.com

Kima
MASAJE LEKUA
Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA
TEL. 36 61 97

Ford
Usurbil Autoak, S.C.L.
Zerbitzu Ofiziala
Zumartegi Poligonoa,
Aitzezarra kalea, 1.
20170 USURBIL
Faxa: 943 36 62 92
943 36 10 79

# Gipuzkoako Itzuliko azken etapa irabazi zuen Xabier Bengoetxeak

**Xabier Bengoetxea Artetxe gazteak (Buruntzazpi taldea) irabazi zuen Gipuzkoako Itzuliko azken etapa, ekainaren 27an. Segura-Segura etapak 90,5 kilometroko luzera zuen eta Xabier Bengoetxeak ihes egin eta bakarrik heldu zen helmugara.**

Abiada bizian osatu zuen etapa Xabier Bengoetxeak, bataz bestekoa 38.479 km/ordukoa izan baitzen. Garaipen honi esker, jubenil mailako lehen urtekoen artean bigarren izan da Gipuzkoako Itzulian usurbildar txirrindulari gaztea. Irudian, helmugara iritsi zen unea.

Eta taldeka, Buruntzazpi taldea bigarren izan zen, bereziki Xabier Bengoetxeak berak, Eñaut Pagolak eta Jon Altunak lortutako emaitzei esker. Zorionak talde osoari.



Xabier Bengoetxea, Helmugara iristeko unean.

# Kiroldegian jaso behar da UTIKE taldearen kirol materiala

Ekainaren 25ean, UTIKE igeriketa taldeko kideak Arcachongo ur parkean izan ziren. “Izugarrizko eguraldi ona izan genuen eta gelditu gabe ibili ginen egun guztian hara eta hona, pott egin genuen arte. Hurrengo urtean ere errepikatzea espero dugu!”.

Horretaz gain, ohar bat helarazi nahi zaie UTIKE-ko partaideei: “kirol materiala (txandala, kamiseta, bainujantzia, toaila) jada iritsi da, materiala Decathlon kirol dendak eman digu, beraz, eskerrak eman beharrean gaude. Eta taldeko partaideak mesedez kiroldegitik pasa zaitezte materialaren bila, eguerdiko 14:00etatik 21:00ak bitarte”.





Igeriketa taldekoak, Arcachongo ur parkean izan dira.

## Garazi Iturralde, bederatzigarren Europako Freestyle txapelketan

Austriako Lienzen jokatu den Europako Freestyle txapelketan parte hartzen izan zen Garazi Iturralde, ekainaren 11tik 21era. Entrenatu ostean, hiru egunez jokatu zen lehian finalerdietara ailegatu eta bederatzigarren postuan sailkatu zen gazte zubietarra. Donostiako klubetik beste hiru lagunekin joan zen Iturralde, eta ez ziren esku hutsik bueltatu. “bi zilarrezko domina etorri ziren Donostiara”.



Europako onenen artean da zubietar gaztea.

## Espainiako txapelketa irabazi du Granadosek

Pistan, kilometroko distantzian ez du areriorik. Hamargarren aldiz irabazi du Espainiako Txapelketa Amador Granadosek. Honakoan, Galapagarren egindako lasterketan. Ez hori bakarrik, jazarpen-proban ere urrezko domina eskuratu zuen. Aurten, kategorien arloan aldaketak izan dira baina txirrindularitza egokituan, onenen pare jarraitzen du. Abuztuan, Quebec-en izango da, Munduko Txapelketan.






## Agenda !

**Uztailak 10-11**
- Pirinioetara irteera (informazio gehiago, Andatza Mendi Taldean).

**Uztailak 14 asteazkena**
- Santixabel Jai Batzordearen bilera, 19:00etan udaletxeko pleno aretoan.

## Goardiako farmaziak

**Uztailak 8, osteguna**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Uztailak 9, ostirala**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Uztailak 10, larunbata**
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Uztailak 11, igandea**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Uztailak 12, astelehena**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Uztailak 13, asteartea**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Uztailak 14, asteazkena**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Uztailak 15, osteguna**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Uztailak 16, ostirala**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Uztailak 17, larunbata**
Oa, Kontseju Zarra 11 Usurbil
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Uztailak 18, igandea**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

G*OARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ*
***Chucla farmazia** (22:00-09:00),*
*Kardaberaz, 48, Hernani (943 551 793)*
**Usurbilen, soilik eguerdira arte*

# Festak baloratzeko Jai Batzordeak bilera deitu du datorren asterako

**Amaitu berri diren Santixabelak baloratzeko bilera deitu du Jai Batzordeak datorren asterako. Hitzordua, uztailaren 14rako finkatu dute, asteazkena, arratsaldeko 19:00etan udalbatza aretoan. Jaiak baloratzearekin batera, Santixabeletan grabatu den bideoa ere aurkezteko asmoa du Jai Batzordeak.**


BILERA UDALETXEAN EGINGO DA, UZTAILAREN 14AN 19:00ETAN.

# Asteburu honetan Pirinioetara, Andatza taldearekin batera

Asteburu honetan, Pirinioetara joateko aukera ederra dago. Andatza Mendi Taldekoak Huescako Pirinioetara abiatuko dira larunbat goizean, igande iluntzean bueltatzeko.

Lehen egunean Aisa herritik Aspe (2561m) mendira igotzeko asmoa dute. Ibilbide zirkular bat eginez, jaitsierako bidea aldatu eta Candanchura iritsiko dira. Gaua Candanchu-Canfranc inguruko alberge batean pasako dute; gosaria, loa eta afaria bertan egingo dira.

Igandean, Canfranc-etik abiatuz, Ip-eko lakura hurbilduko dira. Ip-eko zirkoa zeharkatu eta Collarada (2886m) gailurra zapaltzekotan dira.


IKUSGARRIA DA ASPE BAILARA.

20 euroko fidantza ordaindu behar da baina ordaintzeko epea asteartean amaitzen zen.









## ETXEBIZITZA

- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
-2 gela handiko eta 2 komunetako duplex berria (2003koa) salgai Orion, 80mts. herriaren erdialdean. Igogailua eta trasteroa ditu eta oso argitsua da. 279.000 euro. Tf: 652 73 78 64
-Bikote batek pisu bat alokairuan hartuko luke Usurbilen. Tlf: 943 573 857 edo 603 131 645.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldea-sala. 661 679 691.
- Pisu bat alokatuko nuke, 3 logelakoa eta amueblatua. 646 086 109.
- Gizonezko langile edo jubilatu batentzat gela bat alokatzen da Usurbilgo kaxkoan prezio eta baldintza onetan. 687348223 edo 943364310.
- Logela bat alokatuko nuke edo konpartitzeko etxe batean sartuko nintzateke alokairuan. Nire telefono zenbakia: 648 005 159.
- Apartamendu edo logela bat alokatuko genukeen bikote bat gara. 677866495
- 60 metro karratuko pisua salgai kaxkoan. 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta trasteroa. Dena berrituta eta amueblatuta. Igogailua, hiru balkoi eta oso eguzkitsua. Tf: 686 969 112.
-Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu.Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 364 637 / 943 365 299
-Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat saltzen da Alfaron (Errioxan). Astebukaerak eta oporraldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herritik 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna eta portxea. 675702428 (gauetan).
- Etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Deitu 20:00etatik aurrera 661568471.
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berritua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
-95metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 638279184.
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailean. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
-Santuenea 26an 60 metro karratuko etxea daukagu salgai. 2 gela, sukaldea handia, etxeak kanpokaldera ematen du, gasa eta kalefazioa ditu. 200.000. 666539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
-Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berritu berria. Bikote batentzat egokia. 657708866

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- 2006ko Ford Transit Td/240s Kombi6 salgai. Ioseba 669 074 698.
- Taxi lizentzia bat salgai Usurbilen. Interesatuak Gipuzkoako Taxi Elkartean eskura dezake informazio gehiago eta eginbeharrekoak 943 46 54 98.
- Txaramunto auzoan garaje itxi bat alokatzen da 80 eurotan, Interesatuak deitu: 667715075.
- Zazpi plaza dituen Kia Carnival bat saltzen dugu. 2004 urtekoa da eta 118.000 km dauzka, ondo zaindua, beti garajean egondakoa. 669353942.
- Bizkarre kalean garaje itxi bat daukagu salgai. Altura bikoitza du eta altilo bat egina dauka. Interesatuak deitu 943576957 telefonora.
- Aprilia Chester R-125 motorra daukagu salgai. Egoera onean eta prezio interesgarria. 661618970
-Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
-Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metrotako altuera. 943361265.
-50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajean, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.

## LANPOSTUAK

### Lan-eskaerak

- Astebukaeratan lan egiteko, zerbitzari moduan aritzeko pertsona bat behar dugu. 943 36 67 10.

### Lan-eskaintzak

- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratzeko lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igeltseritza lanetan aritzeko, 677593772.
- Esperientziadun arkitektura ikaslea udan zehar klase partikularrak emateko prest legoke 10-17 urte bitarteko gazteei. Tlf: 628 06 54 70
- Neska gazte bat eskaintzen da udaran zehar klase partikularrak emateko, LH eta DBH mailak. 630 642 352.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, arratsaldez, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. Telefono zenbakia: 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziduna. 658107757
- 23 urteko mutila, Usurbilen lan bila dabil barrako zerbitzari edo sukaldari laguntzaile gisa lan egiteko urte osorako. Lanean berehala hasteko prest: 622 065 461 (Alex).
- Neska bat, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko prest, goizez 8:00-15:00 artean. 679 742 413.
- Astebukaeratan edo astean zehar goizeko 10:00etatik arratsaldeko 16:00ak arte garbiketa lanak edo pertsona helduen zaintzan lan egingo nuke. Interesatuak deitu 618410123
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
-Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411
-Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 630438571
-Gizon bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko. 662461568
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Iñaki: 677 44 31 40.
-Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. Interesatuak deitu 656446835
-Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
-Emakumea interna edo goiz zein arratsaldez orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
-Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646 717 676.
-Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943 368 574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620 185 927.
-Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685 716 774.
-Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630 768 325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
-Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
-Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxeko-lanak egiteko. 679742413.

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

-Plastiko txuri batean sartutako artazi batzuk (ardiei ilea mozteko goraizeak) galdu ditut Alkartasuna kooperatiba eta Artzabal artean. 648191911
-Haurren bixera gorri bat aurkitu genuen ekainaren 10ean, Atxegalderako bidean. Galdu duenak deitu edo galde dezala udaltzaingoan.
-Manta berde bat galdu genuen ekainaren 10ean, Bizkarretik Santuenerako bidean. 943 360 285.
- Flex markako ohe artikulatua eta latex koltxoia salgai. 700 euro. 667521874
-Wii kontsolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopiak kargatu ahal izateko, DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. Kontsola ez da irekitzen eta horrela, garantia ez da galtzen, dena softwarearen bidez egiten da. 635729637
-Argazki zaharrak berritzen ditut. Bideoak montatzen ditut bai bideoarekin, bai argazkiekin DVD formatoan. 635729637
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan: 616260451
-7 gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke, 200 bat euro. 606 101 980.
- Ostalaritzako makinaria, kafetegiko altzariak salgai; aulkiak, mahaiak, kafe-makina,... 607 389 570 (Mireia). istergo@hotmail.com
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki)
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
-Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Etxebizitzen erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173 466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220 925.



**Imanol eta Haizea,** Urte askoan zuen urtebetetze egunean eta oporrak ondo pasa! Agiñako lagunak.



**Intza, Nagore eta Imanol,** oporrak izan arren zuekin gogoratzen gara. Zorionak eta muxuak zuen urtebetetze egunetan. Agiñako lagunak.



**Zorionak Eñaut!** Uztailaren 13an 5 urte beteko dituzu. Muxu potolo potoloak Ane, aitatxo amatxo eta familia osoaren partez.

## HILDAKOAK



**Pepi Lizarazu Balerdi**
79 urterekin hil zen

LATAILLADE ITURGINTZA
GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK
Ariztitxo 8,behea · 943 363 348 · 609 888 021

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE
Obaba kalea 29 · ASTEASU
✆ 943 69 68 52 · 620 800 186

Dena
astiroago
doan garaian



# Gipuzkoa, bizkor



## Donostiako
## Bigarren Ingurabidea

Gipuzkoako errepideak goitik behera aldatuko dituen Donostiako saihesbide "berria".

Azken belaunaldiko 17 kilometroko autobide honi esker, 40.000 ibilgailuk baino gehiagok ez dute Donostiako saihesbidea igaro beharrik izango, batez ere ibilgailu astunak eta Gipuzkoa zeharkatzen dutenak.

300 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa eta trafikoa kudeatzeko teknologia modernoenak zure erosotasuna eta segurtasuna handitzeko.

GIPUZKOA
zurekin, aurrera

# Edertu zaitez!
















